



Nafarroako Kanpoko Ebaluazio Estandarizatuak
EBALUAZIO DIAGNOSTIKO ZENTSALA
DBHko 2.a
2022-2023 ikasturtea

Jarduketen protokoloa

AURKIBIDEA

A.	2022-2023 ikasturteko berritasunak	3
B.	Galde-sorta sozioekonomiko eta kulturala online aplikatzeko protokoloa	3
C.	Probak entregatzea eta zaintzea	5
D.	Ikasleak salbuesteko irizpideak	5
E.	Egokitzapenak dituzten ikasleak	6
F.	Ikaskuntza eta Errendimendua Hobetzeko Programan (IEHP) ari diren ikasleak	7
G.	Curriculum Egokituko Programan (CEP) ari diren ikasleak	7
H.	Probak betetzea	7
I.	Aplikazio fasea prestatzea	7
J.	Aplikazioa	8
K.	Proba egunean etorri ez diren ikasleak	9
L.	Jarraibide espezifikoak gaztelaniazko hizkuntza-gaitasuneko probarako	9
M.	Jarraibide espezifikoak euskarazko hizkuntza-gaitasuneko probarako	10
N.	Ingeleseko hizkuntza-gaitasuneko probaren berariazko jarraibideak	10
O.	Probak aplikatzeko egutegia	11
P.	Proben zuzenketa	12
Q.	Ikasleen matrikulazioa eta datuen sarrera	12
R.	Ikaslearen eta ikastetxearen txostenak eskuratzea	13
S.	Txostenen emaitzen interpretazioa	15
T.	Ikasleek egindako probak gordetzea	16
U.	Eskerrak ematea	16
I.	ERANSKINA - SALBUETSITAKOEN ERREGISTROA	17
II.	ERANSKINA - EGOKITZAPENEN ERREGISTROA	18
III.	ERANSKINA – JARDUKETEN EGUTEGIA	19

Dokumentu honetan azaltzen dira Nafarroako ikastetxe guztiek kontuan hartu beharreko jarraibideak, ebaluazio probak ikastetxe guztietan modu kontrolatuan eta era berean aplikatzen, zuzentzen eta erregistratzen direla bermatzeko.

Ebaluazio honen aplikatze, zuzentze, grabatze eta informatze lanetan aritu beharreko zuzendaritzako kideek eta irakasleek behar bezain garaiz jakin eta gauzatu beharko dituzte jarraibide hauek.

A. 2022-2023 ikasturteko berritasunak

- 2021-2022 ikasturtetik aurrera, lanpostu osagarria duten irakasleek, “**Mintegiburutza**” / “**DBHI esparruko koordinatzailea**” / “**DBHko 1. eta 2. mailako ziklo koordinatzailea IPn**”, EDUCAn, **Tableau** atalean, ebaluazio diagnostikoen emaitzak ikusteko aukera dute.
- 2021-2022 ikasturtetik aurrera, **Educa txostenean (Tableau) item bakoitzeko asmattutako ehuneko** azterketa xehatua egiten da ebaluatutako kompetentzia bakoitzean. Era berean, txosten horrek eduki-multzo bakoitzeko eta ebaluatutako prozesu bakoitzeko asmatutako ehunekoak jasotzen ditu.

Aurreko urteko berritasun hauek mantentzen dira:

- **Gaztelaniazko eta euskarazko hizkuntza-gaitasuneko** probetan, **idatzizko ekoizpenaren** ebaluazioa sartzen da; beraz, bi probek **70 minutu** iraunen dute guztira. Protokolo honen L eta M ataletan, bi gaitasun horietako bakoitzerako jarraibide espezifiko batzuk daude.
- **Emaitzen interpretazioari** buruzko atal bat ere (S) badago.

B. Galde-sorta sozioekonomiko eta kulturala *online* aplikatzeko protokoloa

Hezkuntza Departamentuak ikasleek *online* galde-sortan ematen dituzten datuak konfidentziasunez eta izenik agertu gabe baliatuko dituela bermatzen du. Ebaluazio diagnostikoaren txostenean, ikastetxeek datu hauek izanen dituzte: indize sozioekonomiko eta kulturala, indize horren arabera gaitasun bakoitzerako estimatutako puntuazioak, eta baita gaitasun bakoitzerako Errendimendua-ISEK erregresio-zuzena dituzten grafikoak ere. Bertan ikastetxea zein tokitan dagoen adieraziko da.

Galde-sorta hobeki aplikatzeko, ikastetxeek jarraibide hauek bete beharko dituzte:

1. DBHko 2. ikasmilan ari diren ikasle guztiek bete beharko dute galde-sorta.
2. Galde-sorta helbide honetan eskuragarri izanen da:
<http://dpto.educacion.navarra.es/eed/>
3. Ikasle bakoitza erabiltzaile izen bat eta **ausazko** pasahitz bat erabiliz sartuko da galde-sortan.
KASU! Pasahitz hori **behin bakarrik** erabiltzen ahal da.
4. Galde-sorta elebiduna izan beharko da beti (gaztelania/euskara edo euskara/gaztelania), baina argi eta garbi nabarmendu beharko da zer hizkuntza aukeratu den erantzuteko.

5. Ikastetxeetako zuzendariak **Educa** aplikazio informatikoaren bidez jasoko dute **erabiltzaile izenen** eta **pasahitzen** zerrenda (matrikulaturiko ikasleak bezainbeste izen eta pasahitz, eta beste batzuk erreserba gisa).

(Educa → Ikastetxearen ebaluazioa → Ebaluazio diagnostikoa)

2023ko urtarrilaren 20tik aitzina eskuratu ahal izango dute zerrenda hori.

6. Ikastetxeko zuzendariak erabiltzaile izenak eta pasahitzak emanen dizkie DBHko 2. ikasmilako tutore guztiei eta haiek **ausaz** banatuko dituzte beren ikasleen artean. Galde-

sorta izengabea izan beharko da, eta, beraz, erabiltzaile bakoitzari ez zaizkio izenak eta abizenak eman behar.

7. ***Prestatzea***. Aplikazioa egin aurretik, tutoreek, ikasleek eta familiek askatasunez praktikatzeko ahalko dute, aplikazioan sartzeko **probako erabiltzaile izen eta pasahitz hauek erabiliz**:

Probako erabiltzaile-izena: Irati
Probako pasahitza: Irati

Noiznahi eta nornahi sar daiteke *probako erabiltzaile* modura. Horrek aukera ematen die tutoreei, ikasleei eta familiei galde-sorta aztertzeko eta datuak betetzeko baina **aplikazioan gorde gabe**, ez baitira gordeko *Bidali* botoian *klik* eginda ere.

Ikastetxeak berak erabaki dezake nola bete behar den galde-sorta. Nolanahi ere, komenigarritzat jotzen da tutoreak prestakuntzako tutoretza-jarduerak egitea, ikasleek galde-sorta eta betetzeko jarraibideak ezagutzeko, eta proba bete behar dutenean galderei segurtasunez erantzuteko.

8. ***Aplikazio saioa***. Tutoreak antolatuko du saio hau eta ikastetxeko ordenagailuak erabiliko ditu horretarako. Ikasleak aplikazioan sartuko dira <http://dpto.educacion.navarra.es/eed/> helbidea erabiliz; tutoreak ikasle bakoitzari erabiltzaile eta ausazko pasahitz bat emanen dizkio, aplikazioan sartu eta galde-sorta betetzeko.

Erraz betetzen da, aldez aurretik prestatu bada. Nolanahi ere, alderdi hauek kontuan hartu behar dira:

- Gutxi gorabehera 30 minutu behar dira betetzeko.
- Galdera bakoitzean, ikasleak aukeren artean **erantzun bakarra** hautatu beharko du. Ikasleak noiznahi alda dezake erantzuna.
- Galde-sortan atzera eta aurrera egin daiteke.
- Galde-sorta bukatzeko eta erantzunak gordetzeko, *klik* egin behar da ***Bidali*** botoian. Hau egitea nahitaezkoa da erantzunak gordetzeko.
- Ikasleak galderaren bat erantzun gabe utzi badu, ***Bidali*** botoian *klik* egiten duenean aplikazioak ohartaraziko du, eta ikasleak galde-sorta betetzen segitzeko aukera izanen du edo bukatutzat emanen du ***Horrela bidali*** botoian *klik* eginez.

Badira erantzun gabeko galdera batzuk.
 Amaitzeko, sakatu ***Horrela bidali*** botoia, edo, bestela, osatu galdera-sorta eta sakatu ***Bidali*** botoia

Horrela bidali.

- ***Bidali*** botoian *klik* egin eta galde-sorta bukatu ondoren, ezin izanen da berriz sartu galde-sortan erabilitako erabiltzaile izenarekin eta pasahitzarekin.
9. ***Epeak***. Galde-sorta **2023ko urtarrilaren 30etik martxoaren 10era bitartean** bete beharko da. Epetik kanpo sartzen diren galde-sortak ez dira kontuan hartuko ikastetxeko ISEKa kalkulatzeko. Ez da komeni aplikazioa azken egunetarako uztea, gerta baitaiteke sartzeko arazoren bat konpondu behar izatea.
10. Ikastetxeek kontuan izan behar dute, gainera, ISEK galde-sortaren emaitzak beharrezkoak direla ez bakarrik Ebaluazio Diagnostikoen emaitzak testuinguruan kokatzeko, baita ikastetxeen behar asistentzialak ezagutzeko ere; informazio hori Hezkuntza Departamentuak erreferentzia gisa har dezake noiz edo noiz beste jarduketa batzuetarako.

11. Oharrak eta zalantzak. Zalantzak Ebaluazio Atalean argitzen ahalko dira, bai evaledu@navarra.es helbide elektronikoaren bidez, bai 848 42 67 98 / 848 42 71 19 telefonoetara deituz.

C. Probak entregatzea eta zaintzea

1. Aurreko ikasturteetako prozedura erabiliko da eta zuzendaritza taldeko edozein kidek edo eskuordetzen den konfiantzazko edozeinek jasotzen ahalko ditu probak (sinadurak kontrolatuko dira jasotzean):
 - a) Lizarra, Lekaroz, Tafalla eta Tuterako ILZei atxikiriko ikastetxeek probak dagokien ILZren egoitzan jaso beharko dituzte, **2023ko martxoaren 22, 23 eta 24an**.
 - b) ILZ horiei atxikiriko ikastetxeren batek probak Iruñean jaso nahi baditu, **posta elektronikoz jakinarazi beharko dio Ebaluazio Atalari, 2023ko martxoaren 3a baino lehen (evaledu@navarra.es)**.
 - c) Iruñeko ILZri atxikiriko ikastetxeek probak Hezkuntza Departamentuko Ezkaba Aretoan jasoko dituzte (Liburutegi zaharra, beheko solairuan), **2023ko martxoaren 22, 23 eta 24an**, 08:00etatik 15:00etara.
2. Jaso diren probak zuzen daudela egiaztatu beharko da ikastetxean (koaderno kopurua, horien hizkuntza...). **2023ko martxoaren 30 (osteguna)** izanen da azken eguna Ebaluazio Atalari zeinahi gorabehera jakinarazteko.
3. Zuzendaritzakoek proba hasteko **ordubete edo gutxiago** falta denean emanen dizkiote irakasle aplikatzaileei proba bakoitzerako behar diren koaderno guztiak. Koadernoak paketatuta egon beharko dira, eta proba hasteko unean irekiko dira.
4. Irasle aplikatzaile eta zuzentzaileek erabat isilpean gorde beharko dute proben edukia, **2023ko maiatzaren 16ra** arte. Egun horretatik aitzina probak aske eta irakasleen eskura geldituko dira.

D. Ikasleak salbuesteko irizpideak

Orokorrean, DBHko 2. ikasmilako ikasle guztiek egin beharko dituzte proba hauek, Hezkuntzaren Sostengu edo Errefortzuarekin (HE) eta Errekuperazio Programekin (ERP) ari direnak barne, honako salbuespen hauekin:

- a) Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak, DBHko 2. maila Curriculum Egokitzapen Esanguratsurekin edo CBU curriculumarekin egiten ari direnak.
- b) Espainiako hezkuntza-sisteman berandu hasi diren ikasleak, baldin curriculum-defase larria badute eta Curriculuma Eguneratzeko Plana aplikatzen bazaie.
- c) Ikasteko hizkuntza ia ez jakiteagatik zailtasunak dituzten ikasleak.

Irizpide horietako bat betetzen duten ikasleak salbuetsi gisa agertuko dira Salbuetsitakoan Erregistroan eta EDUCA aplikazioan. Kasu horretan, **haien emaitzak ez dira ikastetxeko txostenean kontuan izanen**. Hori hala izanik ere, salbuetsi gisa ageri den ikasleak probak **egiten ahalko ditu**, haren emaitzak EDUCA aplikazioan sartzen ahalko dira eta ikaslearen txostena lortzeko aukera ere izanen da. Oro har, proba egiten duen ikasle salbuetsi bakoitzak tutorearen, orientatzailearen edo Pedagogia Terapeutikoko irakasleen laguntzarekin eta haien gidaritzapean egingen du proba.

CEPeko ikasleak salbuetsi gisa agertuko dira, baina probak egin beharko dituzte, baldin eta oro har ezarritako salbuespen-irizpideak aplikatzen ez bazaizkio. (G atalean dago CEPeko ikasleei buruzko informazio zehatza).

Ikastetxeek garaiz beteko dute **Salbuetsitakoan erregistroa** (I. eranskina) eta, behar den garaian, informazioa emanen diete probak aplikatzen dituzten irakasleei. Erregistroa ikastetxean gorde beharko da (**ez da Ebaluazio Atalera igorri behar**). Educan, “salbuetsita” dauden ikasleen erregistroan sartzen ahalko da apirilaren 19tik aurrera, eta, horretarako, epemuga maiatzaren 16a izanen da (asteartea).

E. Egokitzapenak dituzten ikasleak

- a) Desgaitasun sentsozial edo motor larria duten ikasleak: egokitzapen gehienak Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroak eginak dira, Hezkuntza Departamentuko Ebaluazio Atalarekin eta ikastetxeko orientazio departamentuarekin edo zuzendaritzarekin lankidetzan.
- b) 03, 04, 05, 07, 09, 11.1¹ kategorietako hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleak: egin beharreko egokitzapenak orientatzaileak eginiko txosten psikopedagogikoan oinarrituko dira, eta ikastetxeak ikasle horiek ebaluatzeko egin ohi dituen egokitzapenen arabera izanen dira.

Egokitzapenak bakoitzaren hezkuntza premia berezien arabera egin beharko dira; banakakoak eta berariazkoak izan beharko dira, eta funtsean metodologikoak; ebaluazio prozedurekin zerikusia izan beharko dute eta, orobat, haietan ezin izanen da egin proben, testuen edo galderen edukari buruzko oharririk, ñabardurarik eta interpretaziorik. Besteak beste, honako neurri hauek har daitezke:

- Denbora gehitzea. Oro har proba egiteko ezarritako denbora bukatu ondoren, egokitzapena behar duten ikasleek proba egiten segitzen ahalko dute, ezarritako egokitzapenaren arabera.
- Kokapen egokia ikasgelan.
- Inguru egokia (argiteria, akustika...).
- Egiaztatzea ikasleek ulertu dituztela proba egiteko jarraibide orokorrak eta, kasua bada, ariketa edo ataza zehatz baten berariazko jarraibideak.
- Proba ahoz egitea (zati batean edo osorik).
- Egiaztatzea ikasle bakoitza proba egiten ari dela arreta edo denbora gehiegi galdu gabe
- Ikaslearen ahalegina indartu eta estimulatzea, hari lagunduz ariketa edo proba egiten segi dezan eta, orobat, gainbegiratu ariketa entregatu baino lehen galdera guztiak erantzun dituela.

Ikastetxeek garaiz bete beharko dute **Egokitzapenen Erregistroa** (II. eranskina) eta ikastetxean gorde beharko da (**ez da Ebaluazio Atalera igorri behar**). Zuzendaritza taldeak eta/edo orientatzaileak, dagokienean, probak aplikatuko dituzten irakasleei xehe-xehe adierazi beharko diete zer egokitzapen egin behar duten eta, behar denean, baita irakasle zuzentzaileei ere. Proben egokitzapenak ez du ondorioz datuak EDUCA aplikazioan sartzean edo erregistratzean. Ohiko moduan sartuko dira, are egokitzapena izan duten ikasleek proba egiteko denbora gehiago erabili badute ere.

Irizpide horiek aplikatuta, familien zenbait eskubide bermatu nahi dira: proba estandarizatu hauetan beren seme-alabek izan dituzten emaitzak jakiteko eskubidea, eta ezaugarri pertsonalak kontuan hartzeko eta emaitzak testuinguruan kokatuta baloratzeko eskubidea.

¹ EDUCA Programaren HPBPD I errolda eguneratzeko llogida liburua. 2022ko iraila.

F. Ikaskuntza eta Errendimendua Hobetzeko Programan (IEHP) ari diren ikasleak

Ikaskuntza eta Errendimendua Hobetzeko Programan (IEHP) 2. ikasmilian ari diren ikasleek era normalizatuan egingen dute proba, eta haien emaitzak **kontuan hartuko dira** ikastetxeko txostenean.

G. Curriculum Egokituko Programan (CEP) ari diren ikasleak

CEPeko ikasleak **salbuetsi gisa agertuko dira** Salbuetsitakoan Erregistroan eta EDUCA aplikazioan, eta haien emaitzak ez dira ikastetxeko txostenean kontuan hartuko.

Hori hala izanik ere, ikasle horiek **probak egin beharko dituzte (ingelesezko gaitasunekoia izan ezik)**, salbu eta oro har ezarritako salbuespen irizpideak aplikatzerik ez badute.

Barneko CEPeko ikasleen kasuan, jardunbide orokorrari jarraikiko zaio: haien erantzunak EDUCA aplikazioan sartuko dira eta ikaslearen txostena aterako da.

Kanpoko CEPeko ikasleen kasuan, probak egingen dira ohiko ikasgeletan, koadernoak eskuz zuzenduko dira, datuak **ez** dira Educa aplikazioan sartuko eta txostenak eskuz idatziko dira. Horretarako, halako ikasleak dituzten ikastetxeek Hezkuntza Departamentuaren webgunean izanen dute materiala, eta edozein laguntza edo argibidetarako Ebaluazio Atalarekin jarriko dira harremanetan.

H. Probak betetzea

- Probak bolaluma urdin edo beltzez bete beharko dira.
- Zientzia gaitasuneko eta matematika gaitasuneko probetan **kalkulagailua erabiltzen ahalko da**.
- Zirriborro papera:
 - Zientzia gaitasuneko eta matematika gaitasuneko proban ikasleek orri zuriak erabiltzen ahalko dituzte eragiketetarako, baina oharrak ebaluazio koadernora pasatu beharko dituzte galderak irekiak direnean eta urratsak edo planteamenduak eskatzen direnean.
 - Era berean, ingeleseko proban ikasleek zirriborro papera erabiltzen ahalko dute probaren lehen zatian oharrak hartzeko (*listening* edo entzumena).
 - Ingeleseko, gaztelaniazko eta euskarazko hizkuntza-gaitasuneko probetan, ikasleek zirriborroak idazteko lekua dute koadernoan bertan, nahitaez bete beharrekoa, baina zirriborro-papera erabiltzen ahalko dute, nahi izanez gero.
 - Ez da zirriborro papera jasoko.

I. Aplikazio fasea prestatzea

- Zuzendariek Protokolo hau irakasle aplikatzaileen esku utzi beharko dute, aplikatzen hasi baino 72 ordu lehenago, gutxienez. Nolanahi ere, gomendatzen da taldean aztertzea bai protokoloa, bai ebaluazio prozesu osoaren plangintza.
- Arreta berezia eman behar zaio ingeleseko probaren aplikazioari; izan ere, audio-erreproduzigailua erabili behar da, eta berariazko jarraibideak ditu. Euskarako eta gaztelaniako probei ere arreta berezia emanen zaie (aurten idatzizko adierazpena sartzen da, lehen aldiz), horiek ere berariazko jarraibideak dituztelako protokolo honetan.
- Ikastetxeek egokitzen dituzten informazio eta motibazio neurriak hartuko dituzte, egitekoa onartzeko eta lanerako giro egokia sortzeko.

J. Aplikazioa

1. Ikastaldeari eskola ematen dioten irakasleek aplikatu beharko dituzte probak, **baina ez une horretan ebaluatzen ari den gaitasunarekin zuzenean lotutako irakasleek.**
2. Aurreko hori betetzerik ez dagoenean, ebaluatoriko ikastaldeari eskolarik ematen ez dion irakasle batek aplika dezake proba.
3. Aplikazioan zehar, irakasle aplikatzaileak konpromisoa hartuko du protokolo honetan dauden jarraibideei fideltasunez jarraitzeko eta ez du proben, galderen edo testuen edukari buruzko argibiderik, ñabardurarik eta interpretaziorik emanen. Aplikatzailearen eginkizuna da errespetuzko eta bakarkako lan giroa bermatzea, eta ikasleei honako hauen antzeko mezuak emanen dizkie: *“irakur ezazu arretaz”, “jarraitu lanean”, “galderaren bat ulertzen ez baduzu, segi hurrengoak egiten eta, gero, saiatu berriro”, “baduzu erreparatzeko denbora”*... Bere egitekoa behar bezala betetzeko, aplikatzaileak ikasgela eta proba zaintzen egon behar du, irasleek arretaz lan egin dezaten eta duten denbora ahalik eta gehien aprobeatzea dezaten.
4. Aplikatzaileak ikasleei proba oso garrantzitsua dela jakinaraziko die, Nafarroako ikasle guztiak egiten ari direla eta ahalik eta ongien egiten saiatu behar dutela, tutoreak gurasoei ekainean emaitza emanen diela eta abar. Sentsibilizazio lan hori oso garrantzitsua da ikasleen inplikazioa eta ahalegina sustatzeko, eta ikastetxean aurreikusitako lan planaren arabera egin daiteke.
5. Aplikatzaileak ikasleei jakinaraziko die ikasgelan egon behar dutela proba bukatu arte; lehenago bukatzen badute, tutoreak proposaturiko lanak egin beharko dituztela, eta ez dutela gainerako ikaskideen lana galarazi behar. Aplikatzailea irakasleek egin beharreko lanaren jakitun izanen da, eta lan hori egiten dela bermatuko du.
6. Aplikatzaileak zerrenda bat izanen du taldeko kide guztiekin, baita salbuetsita dauden ikasleen erregistroa ere. Zerrenda irakurriko du, **bertaratu ez direnen berri jasoko** du eta, salbuetsita dagoen ikasleren batek proba egiten badu, S letra (salbuetsia) idatziko du koadernoan, proba bukatzean.
7. Bermatuko du ikasleen mahaien artean behar besteko tartea dagoela, lana banakakoa izan dadin. Hori hala dela bermatuko du saio guztian zehar.
8. Dena prest dagoenean, koadernoan paketea ireki eta koadernoak banatu beharko ditu. Azaleko datuak betetzeko esan ondoren, probaren koadernoan dauden jarraibideak irakurriko ditu, eta esanen die galdera irekiak daudela, eta baita itxiak ere, eta azken horietan erantzun bat hautatu behar dutela (A, B, C edo D). Esanen die, orobat, galdera irekietan galderaren ondoren dagoen gune librean idatzi behar dutela erantzuna, eta matematika gaitasuneko eta zientzia gaitasuneko probako ariketetan behin eta berriz azpimarratuko du problema ebazteko urratsak edo planteamendua idatzi behar dituztela, galderaren izenburuan hala eskatzen bada.
9. Ingelesezko, gaztelaniazko eta euskarazko hizkuntza-gaitasunen kasuan, protokolo honetako **L, M eta N** ataletan adierazitakoari jarraiki behar zaio.
10. Irakasleek izan ditzaketen zalantza orokorrak argituko ditu, banaka lan egin behar dutela adieraziko du, eta ulertzen ez duten zerbait badago, berriz irakurtzeko edo hurrengo galderara pasatzeko eskatuko die. Probaren edozein unetan, irakasleek aurreko galderak berrius ditzakete.
11. Behin zalantza guztiak argitu ondoren, arbelean idatzi behar dira probaren hasierako eta bukaerako orduak. Honako hau da probak egiteko gehienezko denbora:
 - a) **Gaitasun zientifikoa, matematika gaitasuna eta ingelesezko hizkuntza-gaitasuna: 60 minutu;** denbora erreal edo erabilgarria da hori. Une horretatik aurrera hasiko dira kontatzen probako 60 minutuak.

- b) **Gaztelaniazko hizkuntza-gaitasuna eta euskarazkoa: 70 minutu;** denbora erreala edo erabilgarria da hori. Une horretatik aurrera hasiko dira kontatzen probako 70 minutuak.
12. Egokitzapenak behar dituen ikasleren bat egonez gero, proba aplikatzen duen pertsonari behar bezala jakinaraziko zaio nola eta norekin jardun behar duen. Horretarako, garrantzitsua da protokolo honen E.b atala irakur dezan. Arreta berezia behar duten ikasleak goxo eta arretaz tratatu behar ditu.
13. Proba hasi ondoren, aplikatzaileak ez du argibiderik edo erantzun berririk emango, eta probaren edukiari buruzko kontsulta egiten bada, galdera berriro irakurtzeko edo hurrengora pasatzeko gomendatuko du.
14. Amaierarako 10 minutu falta direnean, geratzen den denboraz ohartaraziko du.
15. Probaren denbora bukatzean, aplikatzaileak koaderno guztiak bilduko ditu, eta ikastetxeko jarraibideei lotuko zaie bertaratu gabeko ikasleek proba beste une batean egin dezaten eta, ondoren, probak zuzen daitezen.
16. Ebaluazio Atalak probak aplikatzeko moduaren kalitate kontrola egingen du, ikastetxeen ausazko lagin batean. Kontrol hori egiteko, atalak izendaturiko langileak egonen dira probak aplikatzen diren saioan, eta protokolo hau betetzen den egiaztatuko dute. Probak egoki zuzendu diren ere egiaztatzen ahalko da.

K. Proba egunean etorri ez diren ikasleak

Ebaluazio proba hauek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasle guztiek egin behar dituzte, baita CEPeko ikasleek ere. Probaren egunean ez dauden ikasleek lehenbailehen egin beharko dute proba, ikastetxe bakoitzak finkaturiko berreskurapen planaren arabera.

Epeek horretarako aukera ematen badute, erantzunak EDUCA aplikazioan sartuko dira eta, hala egiten ez bada, ikastetxeak aukera dauka probak eskuz zuzendu eta ikaslearen txostena idazteko Hezkuntza Departamentuaren webgunean ikastetxeen eskura jarritako materiala erabiliz (erantzun zuzenak, ebaketa-puntuak eta asmatze-ehunekoak).

L. Jarraibide espezifikoak gaztelaniazko hizkuntza-gaitasuneko probarako

DBHko 2. mailan, gaztelaniazko hizkuntza-gaitasunaren probak, idatzizko produkzioa ebaluatzen du; beraz, probaren iraupena **70 minutu**koa izanen da. Ikasleei berariazko jarraibide batzuk emanen zaizkie proba hasi aurretik, jarraian azalduko den moduan. Jarraibide orokorrez gain, honako jarraibide hauek ere hartu behar dira kontuan:

Koadernoaren azalean eskatutako datuak bete ondoren, probak bi zati dituela azalduko da:

IRAKURMENA: 3 testu irakurri behar dituzte, eta irakurritakoarekin lotutako galderari erantzun.

IDATZIZKO ADIERAZPENA: testu bat idatziko dute, koadernoaren atal horretan dauden jarraibideak betez. Lan hori lotuta dago irakurmenaren ataleko azken testuarekin.

M. Jarraibide espezifikoak euskarazko hizkuntza-gaitasuneko probarako

DBHko 2. mailan, euskarazko hizkuntza-gaitasunaren probak, idatzizko produkzioa ebaluatzen du; beraz, probaren iraupena **70 minutu**koa izanen da. Ikasleei berriazko jarraibide batzuk emanen zaizkie proba hasi aurretik, jarraian azalduko den moduan. Jarraibide orokorrez gain, honako jarraibide hauek ere hartu behar dira kontuan:

Koadernoaren azalean eskatutako datuak bete ondoren, probak bi zati dituela azalduko da:

IRAKURMENA: 3 testu irakurri behar dituzte, eta irakurritakoarekin lotutako galderari erantzun.

IDATZIZKO ADIERAZPENA: testu bat idatziko dute, koadernoaren atal horretan dauden jarraibideak betez. Lan hori lotuta dago irakurmenaren ataleko azken testuarekin.


N. Ingelesezko hizkuntza-gaitasuneko probaren berriazko jarraibideak

Jarraibide orokorrez gain, honako hauek ere hartuko dira kontuan:

1. Hezkuntza Departamentuak **apirilaren 19an (asteazkena) bidaliko dio audio-fitxategia zuzendaritza-taldeari, mezu elektronikoa bat igorri evaledu@navarra.es helbidetik.** Aplikatzaileak egiaztatu beharko du audio hori jaitz daitekeela eta ongi entzun daitekeela ikastetxeak aukeratzen duen euskarrian.
2. **Behar bezain goiz** egiaztatu beharko da gelako audio erreproduzigailua ongi dabilela eta gelako leku guztietatik entzuten dela.
3. Aplikatzaileak azalpen guztiak taldearen ikas-hizkuntzan emanen ditu, gaztelaniaz G/A ereduak ikasleei eta euskaraz B/D ereduak.
4. Koadernoaren azalean eskatutako datuak bete ondoren, probak hiru zati dituela azalduko du:
 - a) **LISTENING** (entzumena): 2 aldiz entzuten da ingelesezko grabaketa bat, eta ondoren entzundakoaren gaineko galderari erantzuten zaie.
 - b) **READING** (irakurmena): 3 testu irakurriko dituzte ingelesez, eta irakurritakoarekin loturiko galderari erantzuten diete.
 - c) **WRITING** (idazmena): testu txiki bat idatziko dute, koadernoaren atal horretako jarraibideei jarraikiz. Adierazi behar zaie aldez aurreko eremu bat dutela ideiak antolatzen, eta hori derrigorrezkoa dela puntuatzen delako.
5. Ondoren, azalduko zaie **LISTENING** ariketa (entzumena) honela eginen dela:
 - a) Ikasleek 2 minutu izanen dituzte koadernoko *listening*eko galderak irakurtzeko, aldez aurretik jakin dezaten zer eskatzen zaien.
 - b) Ondoren, 2 aldiz entzuten dute ingelesezko grabaketa bat.
 - c) Entzunaldien artean 70 segundoko etenaldi bat dago. Tarteko etenaldietan galderak erantzuten has daitezke, eta, hala, ondoko entzunaldiari begira, ulertu ez duten horri errepara diezaiokete.

- d) Entzunaldietan oharrak hartzen ahalko dituzte, zirriborro-orrian.
- e) Entzunaldiak bukatu ondoren, ikasleek dakizkiten galderak osatuko dituzte eta proba egiten segituko dute, bakoitzak bere erritmoan.

Ondoko taulan pertsona aplikatzaileari esaten zaio zeintzuk diren *LISTENING* (entzumena) ataleko jarduerak eta denborak:



6. Pertsona aplikatzaileak galdetuko du zalantzarik baden probari buruz, hiru zatietako bati buruz, egin behar dutenari buruz, etab.; eta zalantza horiek argituko ditu, aurreko urratsak errepikatuz, harik eta ikasle guztiek argi eta garbi izan arte.
7. Behin zalantzak argiturik, arbelean idatziko du probaren hasiera eta amaiera ordua, kontuan izanik proba egiteko guztira 60 minutu daudela eta denbora une horretan bertan hasiko dela. Esanen die 2 minutuz *listening*eko galderak irakurri behar dituztela eta, denbora hori pasatu ondoren, audio ekipoa martxan jarriko duela.
8. Proba bukatzeko 20 minutu falta direnean, ikasleei denbora hori falta dela gogoraraziko die, eta iradoki, halaber, idazketa ariketari ekiteko (*WRITING*).

O. Probak aplikatzeko egutegia

Proba guztiek egutegiaren arabera egingen dira:

Asteazkena apirilaren 19a	Osteguna apirilaren 20a	Ostirala apirilaren 21a
Matematika gaitasuna (A/G eta B/D ereduak)	Zientzia gaitasuna (A/G eta B/D ereduak)	Euskarazko hizkuntza-gaitasuna (B/D ereduak)
Atsedena / Jolas-ordua	Atsedena / Jolas-ordua	Atsedena / Jolas-ordua
Gaztelaniazko hizkuntza-gaitasuna (A/G eta B/D ereduak)	Ingelesezko hizkuntza-gaitasuna (A/G eta B/D ereduak)	

P. Proben zuzenketa

1. Epeak. Probak aplikatu ondoren, zuzenketa egiten da. Gomendagarria da aplikazioa egiten den astean edo ondorengoan zuzentzea probak, eta zuzenketa amaitzeko azken eguna **maiatzaren 16** (asteartea) izatea.
2. Irakasle zuzentzaileak izan beharko dira, ahal den neurrian, proba egin duten ikasleei klase ematen ez dietenak.

Proba	Irakasle zuzentzaileak
Gaztelaniazko eta euskarazko hizkuntza-gaitasuna	Gaztelania / Euskara / Gizarte eta Hizkuntza Esparrua irakasleak
Matematika gaitasuna	Matematika / Esparru Zientifiko-Matematikoa irakasleak
Zientzia gaitasuna	Zientzietako (Fisika-Kimika eta/edo Biologia-Geologia) / Esparru Zientifiko-Matematikoa irakasleak
Ingeleseko hizkuntza-gaitasuna	Ingeles irakasleak

3. Proba bakoitzak zuzenketa koaderno bat du, eta bertan zehazten dira galdera irekiak zuzentzeko irizpideak. Koadernoak ikastetxearen eskura egonen dira helbide honetan:

<https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/educacion-secundaria-2022-2023>

Koadernoak pasahitz baten bidez babestuko dira. Ikastetxeko zuzendariari pasahitz hori emanen zaio probak aplikatu aurreko astean, eta hark irakasle zuzentzaileei jakinaraziko die.

Aplikazio egun bakoitzean, 14:00etatik aitzina, webgunera igoko dira egutegi ofizialaren arabera aplikatu diren probak zuzentzeko koadernoak, irakasleek zuzentzen hasteko modua izan dezaten.

Ikaslearen erantzuna zuzenketa irizpideekin alderatu ondoren, irakasle zuzentzaileak ikaslearen koadernoan jarriko du puntuazioa edo behar den kodea (0, 1, 2...).

Galdera itxiak ez dira zuzendu behar. Ikasleen erantzunak Educa aplikazio informatikoan sartuko dira eta automatikoki emanen zaie puntuazioa.

Q. Ikasleen matrikulazioa eta datuen sarrera

1. Epeak. **Apirilaren 19tik** aurrera ikasleak matrikulatu eta datuak sartzen ahalko dira, eta azken eguna **maiatzaren 16** izanen da, ostirala.
2. Irakasleek datuak Educan sartu ahal izateko, ezinbestekoa da ikastetxeko zuzendariak ebaluatzen ahal diren ikasle guztiak **matrikulatzea**. Urrats hori egiten da **“Ikastetxearen ebaluazioa”** → **“Ebaluazio diagnostikoa”** → **“Ikasleak”** **menutik**. Talde bakoitzaren matrikula automatikoki egiten da zuzendariak inprimakia bidaltzen duen lehen aldian (**“Bidali”** beheko botoiarekin).
3. Ikasleen koadernoak zuzendu ondoren, Educa aplikazio informatikoan sartu beharko dira bai galdera itxiei emandako erantzunak (A, B, C, D), bai galdera irekiei emandako puntuazioak (0, 1, 2...). Bi alderdi azpimarratu behar dira:
 - *Galdera itxietan* testu-kodea sartu behar da (A, B, C, D,...). Besterik ezean, hauxe agertuko da: NR (no responde), gaztelaniaz, edo EDE (ez du erantzuten), euskaraz. Aukera hori erabili behar da ikasleak erantzunik eman ez duenean, erantzun bat baino gehiago markatu dituztenean edo argi jakiterik ez dagoenean zein erantzun hautatu duen.

- *Galdera irekietan* zenbaki-kodea sartu behar da (0, 1, 2,...). Zenbakizko kodetzeak ez du NR/EDE aukera onartzen. Gomendatzen da erantzunik ez denean 0 adieraztea, bete gabe utzi beharrean.

Hezkuntza Departamentuko webgunean eskuliburu txiki bat dago, Educan datuak sartzeko jarraibideekin (Educa Gida). Era berean, izan daitezkeen zalantzak Ebaluazio Atalean argitzen ahalko dira, posta elektronikoaren bidez (evaledu@navarra.es) edo telefono hauen bitartez: 848 42 67 98 / 848 42 71 19.

4. Funtsezkoa da ebaluatoriko ikasle guztien datuak zuzen erregistratu direla ziurtatzea, zeren eta datuak sartzeko epea bukatu ondoren ez baita aldaketarik egiten ahalko.

Tutoreak egiazta dezake ikasle bakoitzari buruz Educan zer dagoen erregistraturik. Era berean, zuzendariek bi formatutan ikus dezakete informazio hori (pantaila edo CSV fitxategia), baita egiaztatu ere datu edo erregistro osatugabe edo hutsak dituen ikaslerik ba ote dagoen. Datuak falta badira edo akatsak badaude, Educa aplikazioak ikaslearen eta ikastetxearen txostenak sortuko ditu gorabehera hori kontuan harturik.

Dena den, Educa aplikazioak ez du uzten ezarritako epeetatik kanpora aldaketarik edo zuzenketarik egiten. Hori hala izanik ere, ikastetxeak berak **eskuz** zuzendu edo osatu ditzake txosten horiek, horretarako aipatutako CSV fitxategiak eta Hezkuntza Departamentuaren webgunean eskuragarri dagoen dokumentazioa baliatuz. Eskulan hau neketsua izan daiteke. Beraz, komeni da datuak sartzean akatsak edo hutsegiteak saihestea eta zuzendariek erregistratu dituzten datuak gainbegiratzea gorago aipatutako CSV fitxategia erabiliz.

5. **Salbuetsita dauden ikasleak** aipaturiko erregistroetan identifikaturik geldituko dira Educan, "salbuetsita" zutabean dagokion laukitxoak markatuta. Salbuetsita dauden ikasleen datuak ez dira kontuan hartuko ikastetxearen txostenean edo ikastetxeko estatistiken kalkulan, haien erantzunak erregistratu badira ere.
6. Salbuespenez, salbuetsirik ez dauden ikasleek ezin izan badute gaitasun baten edo guztien probarik egin, Educan dagozkien erregistroak ez dira beteko.
7. Ikastetxeko zuzendariak begiratu du finkaturiko faseak eta epeak betetzen direla. Ebaluazio faseak jarraibideei jarraikiz egiten badira, Ebaluazio Atalak aukera du horien bilakaera gainbegiratzeko eta ikastetxeen kontsultei hobeki erantzuteko.

R. Ikaslearen eta ikastetxearen txostenak eskuratzea

1. Ekainaren 1etik aurrera ikastetxeek txostenak eskuratuko dituzte, Educa aplikazio informatikoaren bidez. Txostenak soilik ekainaren 30era arte egonen dira eskuragai. Hezkuntza Departamentuko webgunean eskuliburu bat dago, txostenak eskuratzeko jarraibideekin (Educa gida).

GARRANTZITSUA: gogorarazten dizuegu ikasleen eta ikastetxearen txostenak ekainaren 30a baino lehen jaitsi eta gorde behar direla.

2. Ikaslearen txostena.

Honako informazioa du:

- Gaitasun mailen definizio orokorra.
- Zer **maila** lortu den ebaluatoriko gaitasun bakoitzean.

- 500 puntuko batezbestekoa eta 100eko desbideratze tipikoa dituen **eskalara ekarritako puntuazioa**, gaitasun bakoitzerako, eta haien irudikapen grafikoa.

Gaitasun bakoitzerako, zuzenean lortutako puntuazioak 500eko eskalara ekartzen dira, ondoko adierazpen matematikoaren bidez:

$$y = 100 \cdot \frac{(x - \bar{X})}{DT} + 500$$

y da 500eko eskalara ekarritako puntuazioa

x da ikasleak zuzenean lortutako puntuazioa

\bar{X} da Nafarroako batezbestekoa ebaluatutako gaitasunean

DT da Nafarroako desbideratze tipikoa ebaluatutako gaitasunean

Puntuazioak eskala amankomun horretara ekartzeak aukera ematen du ikasleak proba bakoitzean zer errendimendu izan duen konparatzeko eta, orobat, Nafarroako batez bestekoarekin konparatzeko moduko informazioa izateko (Nafarroako batezbestekoa proba guztietan 500 da).

500eko puntuazioak ez du "gainditu" duenik esan nahi. Jakin badakigu puntuazio hori gaitasunaren 3. mailan dagoela (eskuarki, maila horren behealdean).

- **Oharretarako gunea**, tutore bakoitzak bete dezakeena. Ebaluazio diagnostikoko txosten honen xedea da ikasle bakoitzarendako hobekuntza neurriak hartzen laguntzea, eta badu oharrak izeneko tarte bat, egokitzen jotzen den mezua idatzi ahal izateko.

Ikaslearen txostena tresna baliagarria da ekainean familiei emateko, tutoretza lanaren testuinguruan.

Educa aplikazio informatikoak aukera ematen du modu erosoan ikastaldeko txosten guztiak artxibatuz eta paperean inprimatzeko.

3. Ikastetxearen txostena (ikastetxeko ikasleen emaitza orokorrekin egindako txostena).

Ikastetxeetako zuzendariak ikastetxeko ikasleek erdietsitako emaitzen **txosten orokorra** (PDF) eskuratuko dute Educa aplikazio informatikoaren bidez, Nafarroako batez besteko emaitzekin erkatuta, baita **EDUCA txostena (Tableau)** ere. Txostenak informazio hau du:

- Sarrera bat, txostenaren irakurketa eta emaitzen barne azterketa errazteko.
- Ikastetxeko ikasleen urtez urteko emaitzak gaitasun bakoitzean.
- Ikasleen ehunekoa gaitasun maila bakoitzean.
- Maiztasun grafikoak, puntuazio bakoitzerako.
- Item bakoitzerako erantzun zuzenen ehunekoa, eta 2021-2022 ikasturtetik aurrera, eduki-multzo bakoitzerako eta ebaluatutako prozesurako, grafikoekin.
- Batez besteko puntuazioak ikasgelaz ikasgela.
- Emaitzak alderatzen dituzten grafikoak, gaitasunez gaitasun, eskala amankomun batera ekarritako puntuazioekin.
- Gaitasun bakoitzerako *Errendimendua-ISEK* erregresio-zuzena duten grafikoak, ikastetxea zein tokitan dagoen adieraziz.

Irakasleen klaustroak ebaluazio diagnostikoko emaitzak aztertu eta baloratu beharko ditu. Datuen gaineko hausnarketa egin ondoren, hobekuntza ildoak proposatu beharko dira eta horren guztiaren berri eman beharko zaio eskola kontseiluari.

Ikastetxeetako zuzendariak urtez urte egiten diren ebaluazioen txostenak gordeko dituzte, formatu elektronikoa.

4. Datuen fitxategia (CSV formatuan)

Ikaslearen eta ikastetxearen txostenez gain, Educa aplikazioak CSV formatuan dagoen fitxategi bat ere badu eta ikastetxeko ikasleen erantzunak daude bertan, taula batean adierazita. Fitxategian informazio hau dago, gaitasunez gaitasun:

- Ikasleen erantzunak. Galdera itxietan, ikaslearen erantzuna agertzen da (A, B, C, D) eta galdera irekietan, zer puntuazio esleitu den (0, 1, 2...). Informazio horri esker, modu zehatzagoan azter ditzakegu ikasleek egin dituzten akatsak eta asmatu dituzten galderak.
- Ikasleek erantzun ez dituzten galderak. Informazio horri esker azter dezakegu ikasleak zenbateraino diren gai ahalegin eta autonomia handiagoa eskatzen dituzten jarduerari aurre egiteko.
- Lortutako puntuazio zuzena.
- Esleitutako gaitasun maila.

Datuen fitxategiak ikastetxeari laguntzen dio azterketa osagarriak egiten eta Educa aplikazioak sortzen duen txostena osatzen. Esate baterako, CSV fitxategiaren datuekin ondokoa egin daiteke:

- Gaitasun desberdinen puntuazioen arteko korrelazioak kalkulatu.
- Gaitasun desberdinetako gaitasun mailen arteko korrelazioak kalkulatu.
- Grafikoak egin eta ikasleen puntuazioak irudikatu mailaz maila.
- Korrelazioak kalkulatu gaitasun desberdinen puntuazioen eta ikasleek barneko ebaluazioetan lortu dituzten emaitzen artean.
- Ikasleen erantzunak eta emaitzak alderatzea ikasgelaren, sexuaren eta abarren arabera.

CSV fitxategia formatu irekiko dokumentu mota bat da, oso xumea, eta kalkulu-orrien edozein programaren bidez ireki eta maneiatu daiteke.

S. Txostenen emaitzen interpretazioa

Ebaluazio Diagnostikoko proben helburua da Nafarroako hezkuntza-sistemaren egoera orokorra ezagutzeko, eta ikastetxe eta familiei ikasleen egoerari buruzko informazio osagarria ematea. Ez dira lotesleak ikasleentzat; sistema hobetzea da haien azken helburua. Zeregin garrantzitsu hori errazteko, Ebaluazio Atalak hainbat tresna jartzen ditu ikastetxeen eta familien eskura, ikastetxearen eta ikaslearen txostenekin batera, emaitzak behar bezala interpretatzeko eta dagozkion ondorioak ateratzeko.

1. Informazio hau oso baliagarria da ikastetxeetan hobekuntzak egiteko:

- a) **Zuzenketa-koadernoak eta eranskinak** (PDF), item bakoitzaren analisisa barne, galdera-mota, zailtasun-maila, eduki-multzoa/testu-mota eta ebaluatutako prozesua zehaztuz. Departamentuaren webgunean daude: [Departamentuaren webgunean daude: Hezkuntza Departamentua](#) → [Gaiak](#) → [Ebaluazioa eta kalitatea](#) → [Kanpokoak](#) → [Nafarroako Kanpoko Ebaluazio Estandarizatuak](#) → [Bigarren Hezkuntza](#) → [2022-2023 ikasturtea](#).
- b) **Txosten orokorrak** (PDF) eta **Educa txostenak** (Tableau) ikastetxeak lortutako emaitzen azterketa xehatua eskaintzen dute.

2. Tutore-lanerako baliagarria den informazioa:

- a) **Gaitasun-mailak: esanahia eta puntuazio-tarteak**. Dokumentu bakar hori dago gaitasun guztietarako. Bertan adierazten da maila bakoitza zer puntuazio-tarteri dagokion, eta deskribatzen da zer gaitasun dauden lotuta lau mailetako bakoitzari.

Interesgarria da hura begiratzea familiei ikaslearen txosteneko emaitzak erakutsi baino lehen. Nolanahi ere, txosten horiek erakusten direnean testuingurua azaldu beharko da beti, eta ikasle bakoitzaren emaitzak aztertu, kontuan hartuta informazio horrek osatu egiten duela ikasgelako laneko ebaluazio jarraituan eta arruntean lortzen den informazioa.

T. Ikasleek egindako probak gordetzea

Zuzendutako **koadernoak** ikastetxean **zaindu** eta **kontserbatu** beharko dira **2026ko ekainaren 30era arte**, eta egun horretatik aitzina suntsitzen ahalko dira. Egun horretara arte, Ebaluazio Atalak koadernoak eskatzeko aukera izanen du, aztertu egin beharko balitz ere ea zuzenketa-irizpideak baliozkoak izan diren eta irizpide horiek zuzen eta modu homogeneoan erabili diren.

U. Eskerrak ematea

Ebaluazio Atalak eskerrak eman nahi dizkie ebaluazio zeregin honetan arituko diren zuzendaritza talde, tutore, irakasle, orientatzaile, zerbitzuetako langile, ikasle eta gurasoei.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 16a

Ebaluazio Atala

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua

I. ERANSKINA - SALBUETSITAKOEN ERREGISTROA

Ebaluazio diagnostiko zentsala, 2022-2023 ikasturtea

DBHko 2.a

SALBUETSITAKOEN ERREGISTROA

Ikastetxea:

 Jar ezazu "X" soil-soilik ikastetxean ez bada salbuetsita dagoen ikaslerik

Salbuetsitako erregistroa			
	Ikastaldea	Izen-deiturak	Zergatia (A, B, C)
1.			
2.			
3.			
4.			
5.			
6.			
7.			
8.			
9.			
10.			

- A. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak, DBHko 2. maila Curriculum Egokitzapen Esanguratsurekin edo CBU curriculumarekin egiten ari direnak.
- B. Espainiako hezkuntza-sisteman berandu hasi diren ikasleak, baldin curriculum-desfase larria badute eta Curriculuma Eguneratzeko Plana aplikatzen bazaie.
- C. Ikasteko hizkuntza ia ez jakiteagatik zailtasunak dituzten ikasleak.

*Erregistro hau ikastetxean gorde behar da (ez da Ebaluazio Atalera bidali behar).

II. ERANSKINA - EGOKITZAPENEN ERREGISTROA

Ebaluazio diagnostiko zentsala, 2022-2023 ikasturtea

DBHko 2.a

EGOKITZAPENEN ERREGISTROA

Ikastetxea:

 Jar ezazu "X" soil-soilik ikastetxean ez bada egokitzapena behar duen ikaslerik

Egokitzapenen erregistroa				
	Ikastaldea	Izen-deiturak	Egin beharreko egokitzapena	Datuak Educan erregistratzea (Bai / Ez)
1.				
2.				
3.				
4.				
5.				
6.				
7.				
8.				
9.				
10.				

* Erregistro hau ikastetxean gorde behar da (ez da Ebaluazio Atalera bidali behar).

III. ERANSKINA - JARDUKETEN EGUTEGIA

2023ko urtarrila/otsaila

al.	ar.	az.	og.	or.	lr.	ig.
23	24	25	26	27	28	29
30	31	1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28					

→ Zuzendariak erabiltzaile-izenak eta pasahitzak eskuratzea (Educac, urtarrilaren 20tik aurrera).

→ *Online* inguruneko galde-sorta aplikatzea (urtarrilaren 30etik martxoaren 10era arte).

2023ko martxoa

al.	ar.	az.	og.	or.	lr.	ig.
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

→ Abisatu, probak jatorrian ez dagokion beste ILZ batean jaso nahi badira (martxoaren 3a baino lehen).

→ Aplikatu *online* galde-sortak **martxoaren 10 baino lehen!** (Gomendatzen da lan hori azken egunetarako ez uztea).

→ Probak jasotzea (martxoaren 22an, 23an eta 24an).

→ Materialak egiaztatzea (martxoaren 30a baino lehen).

2023ko apirila

al.	ar.	az.	og.	or.	lr.	ig.
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

→ Zuzendariak ikasle taldeak matrikulatzea eta salbuespenak erregistratzea Educac (apirilaren 19tik aurrera).

→ Proben aplikazioa (**apirilaren 19an, 20an eta 21an**) eta zuzenketen hasiera.

→ Apirilaren 19an posta elektronikoz bidaliko da audio-fitxategia, ingelesezko hizkuntza-gaitasunaren probarako.

→ Datuak Educac erregistratzea (apirilaren 19tik maiatzaren 16ra).

2023ko maiatza

al.	ar.	az.	og.	or.	lr.	ig.
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

GARRANTZITSUA: irakasle aplikatzaileek eta zuzentzaileek erabat isilpean gorde beharko dute proben edukia **maiatzaren 16ra** arte.

2023ko ekaina

al.	ar.	az.	og.	or.	lr.	ig.
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

→ Ikasleen eta ikastetxearen txostenak eskuratzea (ekainaren 1etik 30era bitarte).

Gorde txostenak (ikasleenak eta ikastetxearenak) ekainaren 30a baino lehenago!